

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Bakeriza Larrinaga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea



Biografia



Ondarroan jaioa, 10 urte ingururekin joan zen Donostiara bizitzera, kaira. Gerra garaia zen. Bederatzi anai-arreba ziren. Ama Ondarroakoa zuten, aita donostiarra: Sebastian Bakeriza arraunlari ezaguna izan zen; Indalecio Prieto politikari sozialistari Frantziara ihes egiten lagundu zion, Primo de Riveraren diktadura garaian. 11 urterekin itsasoan zebilen Migel, lanean; langosta eta aingira harrapatzen, antxoa ere bai. Kaian bertan bainatzen ziren mutikotan; jendeak botatako txanponak ahoarekin hartzen zituzten. Arrantzan jardun du erretiratu arte. Ezkongabea da.

Zintak

DON-067

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2009-07-20
- **Iraupena:** 23 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

DON-068

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2009-07-20
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

DON-088

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-03
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Aingiratan eta antxoatan

- **Erref:** DON-067/006
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:10:41. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Aingiratan. Palangrearekin harrapatzen da. Bi aingira nota: zuria eta beltza. Ibaietakoa txardieta da, ez aingira. Urte guztian harrapatzen zen, baina langosta ez. Antxoatara eta sardinetara ere joaten zen, papardoetara ere bai. Despeska gogorra zen. Zumaia eta Getaria bitartean ontzia matxuratu, eta hondoratu egin ziren behin.

2. Igerian nola ikasi zuen

- **Erref:** DON-067/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:15:11. **Bukatu:** 00:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Igerian nola ikasi zuen, aita txipiroitan zebilen bitartean. Umetan jolaserako aukera gutxi, beti zegoen lanen bat egiteko, aparejuak lehortzen jarri eta.

3. Aingiratarako aparejuak

- **Erref:** DON-067/009
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Aingiretarako aparejuak. Amuak nondik ekartzen zituzten. Txipiroiak palangrean ere harrapatu izan dituzte. Kabrak, panekak...

4. Antxoaren arrantza, Donostia inguruan

- **Erref:** DON-067/012
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:19:44. **Bukatu:** 00:22:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Antxoaren arrantza. Toki finkorik ez zegoen. Gauetz joaten ziren. Argia kandela bat zen. Beldurrez egoten ziren, ontzi handiren batek noiz joko. Nahiago zuten langostetara joan. Bi belarekin ibiltzen ziren.

5. Itsasontziko jana eta ardoa

- **Erref:** DON-068/002
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:00:43. **Bukatu:** 00:02:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

<p>Itsasoan marmitakoa edo bakailaoa jaten zuten. Ardo askorik ere ez zuten, zahato bakarra denentzat. Gerora ardo gehiago zuten gasoila baino. Ardo barririk biltegietatik jasotzen zituzten.</p>

6. Donostia inguruko kalak

- **Erref:** DON-068/003
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:02:28. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

<p>Arrantzarako toki onenak zeintzuk diren, arrain motaren arabera da. Aingirak harrapatzeko zona onena Hondarribia edo Deba aldea zen. Donostia inguruan ere bazeuden toki onak. Horietako kala batzuk aipatzen ditu.</p>

7. Portuko txanponak batzen

- **Erref:** DON-068/004
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Mutil koskorretan turistek, batez ere frantsesek, portura botatzen zituzten txanponak hartzen egoten ziren. Bertan ikasten zuten igerian. Kaian neskak arrokekin bainatzen ziren eta mutilak larru bizitan, geroago galtza zaharrekin.</p>

8. Itsasorako arropak

- **Erref:** DON-068/005
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:05:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

<p>Itsasorako mahoizko arropa erabiltzen zuten. Oinetan egurrezko eskalapoiak edo larruzkoak ere janzten zituzten. Buruan suesta eramaten zuten.</p>

9. Aita arraunlari ezaguna

- **Erref:** DON-068/009
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:09:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:

<p>Bakerizatar anaien aita ezaguna zen arraun munduan. Hainbat estropada irabazi zituen. Donostiarrak onak ziren garai hartan.</p>

10. Mutil koskorretako itsasoko lanak

- **Erref:** DON-068/030
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:29:13. **Bukatu:** 00:30:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

<p>Itsasoan mutil koskorrek egiten zuten lan gehien. Harri koskorrak batzen aritzen ziren. Harri horiek zertarako behar ziren azaltzen dute. Ontzia ere beraiek garbitzen zuten. Lehen zaharrei errespetu handia zieten. Aparailuak oso ondo zaindu behar zituzten, garrantzitsua zen hori.</p>

11. Larunbatetan patriaren etxera partila bila

- **Erref:** DON-068/032
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:32:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>Partila, itsasoko soldata, larunbatero jasotzen zuten. Ez baldin bazuten ezer arrantzatzen ez zuten ezer jasotzen. Patriaren etxean jasotzen zuten

dirua. Erdia armadorearentzat eta gainerakoa arrantzalearentzat. Armadorea eta patroia pertsona bera izaten zen.</p>

12. Errazionamendu garaian ogia arrantzaleentzat

- **Erref:** DON-068/033
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:34:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

<p>Errazionamendu garaian, gerraostean, patroiak ogia ematen omen zien arrantzaleei. Ogi hori nolakoa zen azaltzen dute. Frantziarrek nahi beste ogi zuten eta askotan ematen zien beraiei.</p>

13. Arrain gehien Donostian saltzen zen

- **Erref:** DON-068/034
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:34:04. **Bukatu:** 00:35:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Arraina bertan saltzen zuten. Kostaldeko guztiak (Hondarribitik zein Getariatik) bertara joaten ziren, bertan saltzen baitzen arrain gehien. Goizeko zazpietatik moila kamioiz betetzen zen.</p>

14. Langostak harrapatzen I

- **Erref:** DON-088/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:00:44. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa

Laburpena:

13 urte arte bizi izan zen Ondarroan. Gerra denboran ere Donostian izan ziren. Aitarekin ibili zen itsasoan. 11 urterekin hasi zen. Eskolara ez zen inoiz joan. Otarrainetara joaten ziren. Txabola aitak egiten zuen, neguan. Maiatzean hasten ziren otarrainak harrapatzen.

15. Langostak harrapatzen II

- **Erref:** DON-088/004
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Mariskoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Txabolatik atera, eta bizirik edukitzen zituzten otarrainak. Ostiraletan Ondarroatik Donostiara eramaten zituzten, Bretxara. Sofiak erosten zizkien. Asko harrapatzen zituzten. Aita Santoñara joaten zen lehenago, han gehiago zegoelako. Hiru pezeta kiloa, bera hasi zenean. Lekeition eta Zumaian ibiltzen ziren. Olagarroak otarrainari kalte egiten zion; ez zuten olagarrorik jaten.

16. Urrian, aingiratan

- **Erref:** DON-088/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:06:34. **Bukatu:** 00:08:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Urrian aingiretara joaten ziren. Aingira zuri handiak, palangrearekin, amu handiarekin. 400-500 amurekin. Hiru brazako tartea. Beita. Arroketan aingira beltza harrapatzen ere ibiltzen ziren, arraunean joanda. Asko harrapatzen zuten.

17. Umetako ibilerak

- **Erref:** DON-088/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gutxi jolasten zuten. Baloia paperarekin egiten zuten. Mendira joaten ziren sagarrak lapurtzera. Gaztaina asko zegoen.

18. Gerra etorri zenean

- **Erref:** DON-088/009
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:09:58. **Bukatu:** 00:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra etorri zenean, aita eta Joxe anaia Lekeitiora joan ziren ihesi. Donostiara joan zen amarekin. Amak arraina saltzen zuen han.

Transkripzioa

- Eta gero gerra etorri zanian?
- Gerra etorri zanian, aita ta... aita ta Jose, anaiya, joan zian Lekeitioa, itzul, bestela nazionalek Ondarru hartu zutenian gu amakin geatu giñan han, Ondarrun bertan; ta zubiya bota zutenian, gu... autobusa pasatu zuten gabarran erriyua pasatzeko. Deba, Deba aillatzeko tren hartzeko, honea etortzeko amakin. Denak etorri giñan hona, neskak eta beste anai gaztia ta ni. Ta beste hiru arrebak danak honea etorri giñan. Han ezin zan bizi. Hamen "aunque sea" arraia saltzera joaten zan ama, ta Errenteira ta hola.

19. Aita, Indalecio Prietoren laguna

- **Erref:** DON-088/010
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:10:54. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aita (Sebastian Bakeriza) Indalecio Prietoren laguna zen. Ondarroako portua hark egin zuen, Obra Publikoetako ministroa zen eta. Aita Madrilera joan zen, eta oin hutsik sartu zen. Hiru milioi kostatu zen portua egitea. Prietori aitak nola lagundu zion: gordeta eduki zuen, eta gero ontzian pasatu zuen Iparraldera.

20. Aita, arraunlari famatua

- **Erref:** DON-088/012
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:18:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Aita arraunlari famatua zen. Haren teknikak, ziaboga egiteko. Estropadetako giroa. Arraun taldeak. Pedreña eta Orio. Garai bateko patrioiak.

21. Lehen ere egiten zen gaupasa

- **Erref:** DON-088/018
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Aita arrantzalea eta arraunlaria zen, baina lehorrean parranda ederrak ere egiten zituen; larunbatetan gaupasa, noizean behin.</p>

Transkripzioa

- Zuen aita arrantzalia, eta arraunlaria?
- Dana hori, harek zekan dena, lehorrian'e bai e? Lehorrean'e fin ebiltzen zan hura!
- A bai? Ze iten zun lehorrian?
- Joe, ze ingo zun! Parranda ta...
- A bai e?
- Bai, iten zun, bai.
- Ta ze, sagardotegitara, ta tabernetara ta?
- Ez, sagardotegira ta... Ez zan basoerditan ibiltzen gu bezela oain. Hoiek parranda iten zuten. Larunbatian ateratzen bazan, gau guztiyan parranda.
- A bai e? Hori iten zan lehen e?
- Bai. Hamen? Denak! Ta hamen bezela, portu guztitan.
- A bai? Ta nun egoten ziran ba, tabernetan?
- Tabernetan, ebili juergan.
- Eta? Zabalik egoten zian?
- Hamabitan... Ordu batetan itxitzen zuten.
- Eta orduan gau dena nola iten zuten ba ordun?
- Bueno, etxetan ta, kantatzen ta, badakit honek zean gaztiak, igual-igual. Baiño ez zian hola kontinuo-kontinuo e? Hara joan behar zuten.
- Klaro.

22. Txalupa mutil lanetan

- **Erref:** DON-088/019
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:22:54. **Bukatu:** 00:24:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

<p>Ondarroatik Donostiara joan zenean, Santa Klara uhartera bidali zuten harri bila, sareetarako. Sareak txikiak zirelako. Txalupa mutil bezala bi gizon ibiltzen ziren. Laurdena kobratzen zen.</p>

23. Bisigutako arrantza

- **Erref:** DON-088/022
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:25:48. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

Osabarekin joan zen baporera. Antxoa, sardina, bisigua... Neguan hasten ziren bisigutan, urtarrilean; kantiletan ibiltzen ziren. Eskuzko sondarekin ikusten zen sakonera. Kala onenak: Exkote, Garro... Tretzak erabiltzen zituzten, 120 amu tretza bakoitzak. Etxean beitatzen zen, 'teixotarrean'. Antxoa gazia jartzen zuten beita gisa.

24. Bisigutan tretzak nola bota

- **Erref:** DON-088/024
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

Bisigutan. Tretzak nola botatzen zituzten, ontziaren kareletik. Kajeretan gordetzen zen arraina ontzian, kubiarta ganean. Gero karroan eramaten zen Bretxara, saltzera.

25. Arrantzaleen jaiegunak

- **Erref:** DON-088/025
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:32:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Gabon Egunean etxean egoten ziren, baina gainerakoetan ez. Ama Birjina Eguna eta Karmenak ere jaiegunak ziren. Txarangak eta lurrezko eltzak egoten ziren haurrentzat Karmengo jaietan. Zaku lasterketak ere bai.</p>

26. Kaian igerian

- **Erref:** DON-088/027
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:32:56. **Bukatu:** 00:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Kaian bainatzen ziren, baina ez zuten uzten. Ontzien artean ezkututzen ziren. "Perrita al agua" egiten zuen, kanpotarrek botatzen zituzten txanponak hartu. Itsasoa ikasi zuen igerian, aitarekin.</p>

27. Txipiroitan Deban

- **Erref:** DON-088/028
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:37:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:

Txipiroitara anaiarekin joaten zen, arraunean. Debara joaten ziren

Ondarroatik. Mareatu egiten zen beti. Egunez ibiltzen ziren. Aguariña erabiltzen zuten. Urte guztian dago, baina negua da garai onena.

28. Antxoatan, aitarekin

- **Erref:** DON-088/030
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:37:35. **Bukatu:** 00:42:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

<p>Antxoatan martxotik ekaina bitarte. Mailarekin ibiltzen ziren, ez sarearekin, bapore txikietan. Despeskatzen emakumeek laguntzen zuten. Uretan garbitzen zuten gero, eta lehortzen utzi. Sareak tindatu egin behar ziren. Lo gutxi egiten zuten. Arratsaldean botatzen zuten sarea, ilundu arretik. Sarearen izenak: 'treina' Ondarroan eta 'zirkua' Donostian. Ardora ikusteko, ilargia txarra.</p>

29. Ardora nola ikusi, antxoatan

- **Erref:** DON-088/031
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:42:20. **Bukatu:** 00:44:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Ardora ikusteko ilargia txarra da. Kandela bat bakarrik izaten zuten piztuta. Sirenarik ez zuten, kanpaitxoa bai. Sarea nondik botatzen zen antxoatan. Asko harrapatzean, oparitu, zapien bilduta. Sororako ere bai.

30. Antxoa deskargatzea eta benta

- **Erref:** DON-088/032
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:47:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

18 kiloko neurria erabiltzen zen antxoarekin. Neurritik kaxetara. Emakumeek izotza botatzen zuten. "Millotarra" arraina baporetik ateratzeko erabiltzen zen, dena eskuz. Mutrikun egiten zuten "millotarra". Benta nola egiten zen.

31. Pixonerak

- **Erref:** DON-088/034
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:49:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Pixonerak. Ontzi bakoitzak berea zuen. Saldutakoa apuntatzen zuen emakumea. Antxoak kamioiak eramaten zituzten, arrain asko zegoen.

Transkripzioa

- Pixonerak.
- Pixonerak zian, "particulares", partikularrak.
- Ontzi bakoitzak zeukan beria?
- Bai, bai, bai, etxeko emakumia o etxekua nagusiyen, baporeko nagusiyen emakumia pixonera zeran.
- Eta ze iten zun pixonerak?
- Pixonerak papera hartu ta saltzen zunian, "a ver", gizonai esaten zion, gizonai o mariñeruai esaten zion: "a ver, a tal sitio, a tal sitio". Bere erostailleek zekaten bere tokiya, ba, "Ilévale a Francisco o a Manuel o..." esaten ziyoten, ta medida bat lagatzen zuten han, gero millotarrakin, bete ta kajetara. Kajetara bota, ta jela botatzen zioten emakumiak, palada bat o bi, ta mutillak jarri ta... Hamen arraia? Mundu guztiyan ez zan egoten hamen baiño arrai gehio! Antxua... Kamioiak eta kamioiak eta kamioiak e? Ikusi in behar zan hura!

32. Emakumeen lanak

- **Erref:** DON-088/036
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:51:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Emakumeek lan asko egiten zuten kaian. Asko zeuden. Arraina kaxetan jarri. Emakumeek ez zuten beitatzen Donostian. Saregileak batzuetan baporera joaten ziren jostera.

33. Atunetan, osabarekin

- **Erref:** DON-088/037
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:51:06. **Bukatu:** 00:54:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:

Udaran joaten ziren atunetara. Kazan harrapatzen zuten. Pertxala. Orain karrete elektrikoa dago, baina lehen alanbrearekin egiten zen, eskuz. Behatzak falta zitzaizkien arrantzale askori. Despeska ere eskuz. Beitarik ez, arto azala erabiltzen zuten. Koloretako zinta jarrita.

34. Berdeletako arrantza

- **Erref:** DON-088/040
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:55:32. **Bukatu:** 00:57:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina

Laburpena:

Berdela dagoen bitartean ez dira joaten antxoatara. Berdeletarako sarea handia da. Anaiari nola hautsi zaion sarea. Lehengo sareak askoz txikiagoak ziren. Berdeletarako aparejuak lehen eta orain.

35. Arrantzarako botak: eskalaproiak

- **Erref:** DON-088/043
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:58:56. **Bukatu:** 00:59:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Eskalaproiak erosi eta kotxeen goma jartzen zion norberak, iltze txikiekin. Bota beroak ziren.

36. Partilaren banaketa

- **Erref:** DON-088/045
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>Partila. Pixonerak edo patrioiak ematen zuen, bere etxean. Nola egiten zen banaketa. Txalupa mutila, marinela... Txakurrena: 33 arroatik gora, potxoak banatzen ziren. Arroa bat lau potxo. Etxean, arrainik onena beti. (Arroa 1= 12.5 kg).</p>

37. Bandera noiz altxatzen den

- **Erref:** DON-088/048
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:03:06. **Bukatu:** 01:04:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Bandera. Ondarroan beti izan dira bandereroak, Donostian gero jarri zuten. Bandera jartzean, inor ez zen ateratzen. Bestela, bronkak egoten ziren.

38. Distantziak, begiz neurtu

- **Erref:** DON-088/049
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:04:26. **Bukatu:** 01:06:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Nabigazioa

Laburpena:

Itsasontzien artean komunikatzeko biderik ez. Distantziak neurtzeko, begiz. Konpasa erabiltzen zuten.

39. Kofradia eta ermandadea

- **Erref:** DON-088/050
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:06:06. **Bukatu:** 01:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Kofradia beti egon izan da. Dirurik ez zuten jartzen arrantzaleek, erosleek baizik. Itsasontzia apurtuz gero, norberak ordaindu behar du; aseguruia aparte da. Ermandadea ere badago horretarako, bakarra Gipuzkoa osorako.

40. Medaila sareetan, arrantza ona izateko

- **Erref:** DON-088/052
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:07:52. **Bukatu:** 01:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Amak sareari medaila jartzen zion kortxoan, eskapularioa bestela. Ontzian batzuek errezatu egiten zuten, txapela kenduta. Marmitakoa jaten zuten, haragia patatekin... Atunetara joaten zirenean, zortzi egun egiten zituzten kanpoan, 200 miliara. Izotza nondik ekartzen zen.

41. Kontserba lantegian lanean, mutikotan

- **Erref:** DON-088/053
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:10:04. **Bukatu:** 01:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Ondarroan kontserba lantegi asko zegoen; mutikotan bera ere ibili zen buruak kentzen. Ondo ordaintzen zuten. Herriko ume denak joaten ziren lanera, urtero, antxoa garaian.

42. 500 tona txitxarro sartu zirenekoa

- **Erref:** DON-088/054
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:11:12. **Bukatu:** 01:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>Arrantzaleak lehorrekoek baino gehiago irabazten zuten. Egunero zegoen arrantza: antxoa, sardina... egun batean 500 tona txitxarro sartu ziren. Txitxarroa amuarekin eta sarearekin harrapatzen zuten. Azalean botatzen zen aparejua, egunez. "Toleta".</p>

43. Balizen erabilera

- **Erref:** DON-088/055
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:12:50. **Bukatu:** 01:14:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

<p>Balizak zertarako diren. Pisua dute. Kanabarak eta trapua. Palangreentzat, langostentzat, sareentzat... aparejua ikusten ez den tokietan jartzen dira balizak.</p>

44. Sineskeria gutxi

- **Erref:** DON-088/057
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:15:14. **Bukatu:** 01:16:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Sineskeriak. Osaba batek, Soterok, katua ikusten bazuen ez zen itsasora joaten. Berak eguraldi txarrari bakarrik zion beldurra.

45. Ontziko karguak

- **Erref:** DON-088/059
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:16:15. **Bukatu:** 01:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Ontzietako karguak: patroia eta sotapatroia, haren ordezkoa. Marinelak edo tostartekoak. Txalupa mutilak; orain ez dago halakorik. "Txakurrena" momentuan kobratzen zen, dirutan.

46. Tabernetan ibiltzeko ohitura eta zinema aretoak

- **Erref:** DON-088/061
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 01:18:36. **Bukatu:** 01:22:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gaztetan diruarekin zer egiten zuten. Tabernetan ibiltzen ziren. Orain baino gutxiago zeuden. Bulebarretik kanpora ur handiak ziren. Zeruko taberna du arrebak; duela 25 urte jarri zuten. Asteburutan ibiltzen ziren. Sagardotegietan arrainaren gibelaren olioia erabiltzen zuten. Egunero joaten zen zinemara.</p>

47. Dotrina ikasteko garaia

- **Erref:** DON-088/064
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:25:19. **Bukatu:** 01:26:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Dotrina, Ondarroan. Masailekoa eman zion bikarioak, hizketan zegoelako elizan. Ez zen bueltatu. Elizara ere ez zen asko joaten, baina amak galdetu egiten zion apaiza nor zen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com